

VIII. KARTEL LEHIAKETA

‘Oinarriak’

2013ko martxoak 8

‘Emakumeen Nazioarteko Eguna’



VIII.CONCURSO DE CARTELES

‘Bases’

8 de Marzo de 2013

‘Día Internacional de las Mujeres’

1. PARTAIDEAK

Parte hartu ahal izango du nahi duen guztiak, banaka zein taldeka. Lehiakide bakoitzak gehienaz hiru lan aurkeztu ahal izango ditu, denak ere originalak, argitaragabeak eta beste ezein lehiaketatara aurkeztu gabeak. Lan bat baino gehiago aurkezten duenak zenbatu edo izendatu egin beharko ditu.

2. GAIA

Emakumeen Nazioarteko Eguna izango da kartelaren gaia.

3. LANEN EZAUGARRIAK

Teknika eta koloreak libreak izango dira. Teknika guztiak dira zilegi, baldin lana inprentan erreproduzitzea ahalbidetzen badute.

Din A-3ko formatua erabiliko da eta lan guztiak, derrigorrez, aurkeztuko dira inprimatuta euskarri gogorrean eta kristal barik. Orobat ekarri beharko da (CDan edo antzeko euskarri batean) lanaren argazki edo irudi bat.

Lanean derrigorrez agertuko da esaldi hau: “*2013ko Martxoak 8-Emakumeen Nazioarteko Eguna* 8 de marzo-Día Internacional de las Mujeres”. Testu gehiago sartu ezker, leloren bat edo, euskaraz eta gazteleraz egongo da.

Orobat ekarri beharko da (CDan edo antzeko euskarri batean) lanaren argazki edo irudi bat.

Kartelak, halaber, behar adina toki izango du, Udalaren logotipo ofizialak eta egun horren inguruan antolatuko diren ekitaldien egitaraua sartzeko.

Ez da inolaz ere onartuko beste egile batek erabilitako irudi edo irudi-plagioekin egindako lanik; eta arrazoi honengatik gerta litekeen edozein arazoren erantzule bacadá egilea bera izango da.

4. LANA NOLA AURKEZTU ETA BIDALI

Lanak egoki batuta eta euskarri gogor batean aurkeztuko dira, kalterik izan ez dezaten. Lana biltzeko erabiltzen den materialaren gainean hau idatziko da: “2013KO MARTXOAK 8KO KARTEL LEHIAKETA”.

Lanen atzekaldean lema bat jarriko da, egilearen izenik gabe. Egilearen datuak (izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa eta kurrikulum laburra) gutunazal itxi batean sartuko dira eta gutunazala lanarekin batera bidaliko (bilgarriaren barruan sartuta). Gutunazalaren atzekaldean jarri bedi lanean agertzen den lema bera. Gutunazalaren barruan orobat sartuko dira ENAren kopia, lanaren kopia bat euskarri informatikoan eta, nahi izan ezker, lanaren gaineko deskripzio tekniko edo azalpen labur bat.

5. LANAK NON ETA NOIZ AURKEZTU

Lanak Errota Kultur Etxean (Traña-Matienan) edo Udal Mediatekan (Zelaietan) aurkeztuko dira goizez nahiz arratsaldez (09:00etatik 20:00ak arte), astelehenetik barikura bitartean, edo postaz bidalita helbide honetara: Abadiño Udaletxea. Bardintasun Arloa. San Trokaz plaza, 1, 48220 Abadiño, Bizkaia.

Lanak aurkezteko epea otsailaren 21eko 20:00etan bukatzen da. Zigilu-markan data hori ageri duten postaz bidalitako lanak ontzat hartuko dira.

6. EPAIMAHAI

Epaiahai gaitu batek aukeratuko ditu lan onenak. Epaia eta epaikideak otsailaren 25an jakinaraziko dira. Epaimahaiak erabaki dezake saria eman gabe uztea..

Epaia apelaezina izango da. Epaimahaiak eskua dauka arau hauek ulertzeko orduan gerta daitekeen edozein zalantza, ustegabe edo interpetazio arazo argitu eta ebazteko, eta bere iritzia izango da azken hitza.

Irabazleari komunikazio pertsonal baten bidez jakinaraziko zaio emaitza. Baldin kartelak egokitzapenen bat beharko balu ondo inprimatua izateko, egilea arduratuko litzateke lan horretaz.

7. SARIA

Egile batek ezingo ditu jaso sari bat baino gehiago. Hona hemen sariak:

- **I. saria: 400 €**
- **Saritu gabeko herriko egilearendako akzesita: 100 €**

Saritutako lana Udalaren jabetza bihurtuko da eta Emakumeen Nazioarteko Egunaren kariatara Udalak argitaratuko dituen kartel, foileto eta argitalpenetan agertuko da. Sari banaketaren data geroago jakinaraziko da, Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizun egitarauaren arabera.

8. LANEN JABETZA ETA SARITU BAKO LANAK

Lan sarituak abadiño Udalaren jabetza izango dira eta Udalak esku osoa izango du deritzon eran erakutsi, erreproduzitu eta argitaratzeko egile eskubiderik ordaindu barik.

Saritu gabeko lanak erretiratzeko hilabeteko epea egongo da, apirilaren 2tik hasita. Emandako epean lanak jasotzen ez badira ulertuko da egileak uko egiten diela euren gaineko eskubideei. Une horretan lanak Berdintasun Arloko artxiboetara joango dira.

9. ERAKUSKETA

Aurkeztutako lanekin erakusketa bat antolatuko da martxoan kultur etxeetan, baita udal webgunean ere.

OHARRAK: Lehiaketa honetan parte hartzen duenak osorik onartzen ditu bere arauak. Antolatzaileek eskua dute lehiaketaren onerako egoki iruditzen zaizkien aldateka guztiak sartzeko.

1. PARTICIPANTES

Podrán participar todas las personas interesadas, a título individual o bien en equipo. Cada concursante podrá presentar un máximo de tres obras, originales e inéditas, que no hayan concurrido en otros certámenes. Quienes presenten más de una obra deberán numerarlas o titularlas.

2. TEMA

El motivo del cartel será el Día Internacional de las Mujeres.

3. CARACTERÍSTICAS DE LAS OBRAS

La técnica a utilizar será libre al igual que el color, condicionada tan sólo a que ésta permita una correcta reproducción en imprenta. Se utilizará un formato de Din A-3 y todas las obras se presentarán impresas sobre un soporte rígido y sin cristal.

Deben incluir obligatoriamente la leyenda “8 de marzo-Día Internacional de las Mujeres *2013ko Martxoak 8-Emakumeen Nazioarteko Eguna*”. Si se incluyera más texto, como algún lema, este deberá aparecer en euskera y castellano.

Además, se deberá incluir (en CD o soporte similar) una foto o imagen de la obra. No se admitirán a concurso los trabajos que se presenten exclusivamente en soporte informático. Es necesaria la entrega de la reproducción impresa.

El cartel tendrá suficiente espacio para la incorporación del logo municipal, así como de las actividades que tendrán lugar con motivo del 8 de marzo.

En ningún caso se admitirán carteles, en los cuales se hayan utilizado imágenes o plagios de imágenes de otros autores/as o instituciones, siendo la autora o el autor, la única persona responsable ante cualquier incidencia que por estos motivos se pudiera producir.

4. FORMA DE PRESENTACIÓN Y ENVÍO

Los trabajos deberán ser presentados convenientemente envueltos y con un soporte rígido para evitar desperfectos. El envoltorio se rotulará con la frase “CONCURSO DE CARTELES 8 DE MARZO DE 2013”.

Se presentarán bajo lema al dorso, sin identificación expresa de la autoría. Sus datos (nombre y apellidos, edad, dirección, teléfono y breve currículum) habrán de indicarse en un sobre cerrado que acompañe los trabajos (dentro del envoltorio) y en cuyo anverso figure el mismo lema que en éstos. En el mismo sobre se deberá incluir fotocopia del DNI, la copia de la obra en soporte

informático, y si se desea, una breve descripción técnica y/o interpretativa de la obra.

5. LUGAR DE ENTREGA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

Las obras originales se entregarán en Errota Kultur Etxea (Traña-Matiena) o en la Udal Mediateka (Zelaieta), en horario de mañana y tarde (de 09:00h. a 20:00h), de lunes a viernes, o remitiéndolos por correo a la siguiente dirección: Área de Igualdad. Plaza San Trokaz 1, 48220 Abadiño, Bizkaia.

El plazo de entrega de los trabajos finalizará el 21 de febrero, a las 20:00h. Se admitirán las obras enviadas por correo que tengan esa fecha en el matasellos.

6. JURADO

Un jurado cualificado escogerá las mejores obras. El fallo del jurado y la composición del mismo se darán a conocer el día 25 de febrero. Si en opinión del jurado, las obras no reunieran los criterios seleccionados por el mismo, los premios podrán ser declarados desiertos.

El fallo del jurado será inapelable, quien a su vez podrá resolver cualquier duda, imprevisto e interpretación que se derive de las siguientes bases, prevaleciendo en todo momento su criterio.

La persona ganadora será informada mediante comunicación personal. Si la ejecución técnica del cartel requiriese alguna adaptación para su mejor impresión, la autora o autor deberá asumir este proceso de adaptación.

7. PREMIO

Se establecen los siguientes premios, no pudiendo ninguna autora ni autor beneficiarse de más de un premio:

- **I.Premio: 400 €**
- **Accésit a la autora o autor local no premiado: 100 €**

La obra ganadora ilustrará los carteles, folletos y publicaciones que se editen con motivo del Día Internacional de las Mujeres.

La entrega de premios se establecerá más adelante en el marco de la programación del 8 de Marzo 'Día Internacional de las Mujeres'.

8. PROPIEDAD DE LAS OBRAS Y OBRAS NO PREMIADAS

Las obras premiadas quedan en propiedad del Ayuntamiento de Abadiño, quien se reserva el derecho de su exposición, reproducción o publicación.

Las obras no premiadas permanecerán a disposición de sus autoras y autores para ser retiradas durante el plazo de un mes a partir del 1 de abril. Pasado este

plazo se entiende que se renuncia a cualquier derecho sobre ellas y las obras pasarán a los archivos del Área de Igualdad.

9. EXPOSICIÓN

Durante el mes de marzo tendrá lugar una exposición de las obras presentadas. También se exhibirán en la web municipal.

OBSERVACIONES: La participación en este concurso implica la aceptación íntegra de sus bases. La organización podrá introducir, si lo cree necesario, las modificaciones que estime convenientes para el buen funcionamiento del concurso.

Abadiñoko Bardintasun Arloak, udalerriko emakumeen elkartekin elkarlanean, martxoaren 8 guztietan ospatzen du Emakumeen Nazioarteko Eguna, emakumearen eskubideak aitortu eta aldarrikatzeko. Deialdi honen helburua da gizon-emakumeen arteko benetako bardintasunaren aldeko borroka-egun horren edukia eta eñahia adierazten duen kartel bat aukeratzea.

El Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Abadiño, con la colaboración de las asociaciones de mujeres del municipio, celebra anualmente el 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, como una fecha de reconocimiento y reivindicación de sus derechos. El objeto de esta convocatoria es la selección de un diseño gráfico que represente esta fecha reivindicativa de lucha a favor de la igualdad real entre mujeres y hombres.

INFORMAZIO GEHIAGO...// MÁS INFORMACIÓN EN...

BERDINTASUNERAKO ARLOA (ÁREA DE IGUALDAD)

Plaza San Trokaz 1. Tfno. 944.669.420

E-mail: berdintasuna@abadiano.org

www.abadiano.org



Abadiño

Elizateko Udala



Emakumea eta Bardintasuna

Mujer e Igualdad